

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/2/19 | 318

- Belarmendi makina zerbitzua
- Zintzilik: #hitzokei hiztegia
- Ahokotasunaren jaialdia
- Ioseba Rojo eskiatzailea bikain
- Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...



Hotzari
koloreak ateraz

CITROËN C4
9.900€ TIK

MOMENTUA APROBETXATU
 5 aldiz Munduko Re-
 listako txapelketa irabazi.
 Citroën-ek eronka guztiak gairatu ditu. Eta orain, berriz ere berriz berriz gairatu du guretzat urri ez dezakeen per-
 zoa eskaintzaz. Tekno-
 logia onenak diruzko-
 trako unean zai ba-
 zaudu, ez ezazu bahar-
 aite itaron, gaur da
 momentua.



EZ EZAZU AUKERA HAU GALDU:



CITROËN C1
6.600€ TIK

CITROËN XSARA PICASSO
 HDI **12.700€** TIK

CITROËN C4 SEDAN
 HDI **16.100€** TIK

Konsumo mitza (L/100km) / CO₂ emisio (g/km): C1 4.1-6.5/106-109 C4 4.46-9/115-164 Xsara Picasso 5.07-3/130-172 C4 Sedan 5.27-6/136-179

*PVP gomendatua C1 1.0K3p, C4 1.6LX, Xsara Picasso HDI 90 Arokom LX Plus eta C4 Sedan HDI 110 IAP Arokom Collector berriz, gaurko, beharpena eta Hori 2000E baino gutxiago publikoari inkestru kolokatu orain 2000E Flareo gaurko diren berriz gaurko-
 re zuzenduta, dagokien Komunitate Autonomoan, hobeago bukatzen stock-ean daukan au-
 tomobilentzat. Beharpen ez gehigarriak. Buztako modeluak: C1 Aukera, C4 Exclusive, Xsara
 Picasso Exclusive eta C4 Sedan Collection.



IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIA GUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA



aldama_tapia
 aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
 20400_TOLOSA Gipuzkoa
 Tel_943 650 375
 Faxe_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



berri lantegia, s.l.
 Bartolome Altuna Agirrezabala
 Ameriketa bidea, Fabrika poligonoa
 20260 ALEGIA - Gipuzkoa
 Tel 943 65 28 46 Faxa 943 65 37 55 | Mug. 608 97 82 88
 talerazaberrill@telefonica.net



TAXI
 Imanol Ormazabal
 Telf. 670 44 98 58



MULTIOPTICAS
 1.A ZERRITZU OPTIKOETAN

ZEUK AUKERATU

50€
 BETAURREKO ZAHARREN TRUKE

2garren
 BETAURREKOAK DOAN

% 60
 rainoko BEHERAPENA LEHEN MARKETAN

www.multiopticasgipuzkoa.com

San Frantzisko 23
 Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

Balagaitza 2010eko martxoaren 7ra arte. Ezin gabe beste eskaintza edo promozio batzuekin batera.



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
 Banatzaileak: Olatz,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GORTIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Belarmendi, baserritar eta udaletxeentzako makina zerbitzua

Belarra moztu eta bolak egin, edo artaberdea erein eta bildu; eskuz eta norbere kasa egiteko errendimendu gutxiko lanak dira hauek baserritarrentzat. Bestalde, udaletxeek ezin dituzte baserri-bideetako desbrozaketa (sasi-jotze) lanak edo eta areken (ur-bideen) mantenimendua egiteko makinak erosi, inbertsio izugarria eskatzen baitute. Bada, hutsune hauek betetzen ditu Belar mendi makina zerbitzuak. Aipatutako lanei maila goreneko errendimendua ateratzeko makinak jartzen dituzte baserritar eta udaletxeen eskura, eta gainera prezio ekonomiko batean.

8-11. orrialdeak

«Down sindromea dutenen normalizaziorako urrats bat izan nahi du filmak. Kontakizuna beraien ikuspegitik islatu nahi izan dugu. Harridura sortuko du ikusleengan, istorioa kontatuta dagoen moduagatik. Filma aurrera doan heinean, ikusleak protagonistek down sindromea dutela ahaztu egiten du».

Elkarrizketa: Juan Manuel Zaldua

16-18. orrialdeak

	Iritziaien leihoa: Oscar Zapata eta Galtzaundi Euskara Taldea	4-5
	Normalizazioa: Euskarazko web guneentzako dirulaguntza	6-7
	Iñauteriak 2010: Bikaina izan da!	12-15
	Zintzilik: #hitzokei hiztegia	19
	Kultura: Ahozkotasunaren jaialdia	20-21
	Kirol salta: Ioseba Rojo eskiazailearen denboraldi bikaina	22-23

Oharra:

Inprentako akatsa tarteko 317. aleko 8, 9 eta 19. orriak gaizki inprimatuak izan ziren. Barkamenak orri hauean aipatuei.

Sortu eta eragin!



Oskar Zapata Solano
Nafarroako Topagunea

4 Kaguenka! bukatu genuen 2009. urtea Topagunekook, euskalgintzako beste hainbat eragilek bezala: haserre, irainduta, nazkatuta... Hau da, toxinaz beteta.

Nahikotxo hitz egin da euskarazko hedabideek merezi ez duten tratua, euskaraz zein erdarazko Euskal Herri osoko hedabideetan. Hauxe da gertatu denaren gainean egin dezakegun irakurketa positibo bakarra: alde batetik, hainbat enteratu dira existitzen garela eta egituratu samar gaudela, eta bestetik Euskarabidearen sorrerarekin Nafarroako Gobernuak egin zuen distrakzio maniobra berez erori egin dela, agerian geratuz, Nafar Gobernuak daraman hizkuntza politika euskarafobiko, mendekatzaile eta aldeanoa ezkutatzeko, Euskarabidea erabiltzea dela euren asmo bakarra, horretarako Euskarabideako zuzendaria ipurdia agerian utzi behar badu ere.

Bestelakoa izan zitekeen Institutua baliabidez hornitu izan

balute, baina ez. Gero elkarbizitzaz hitz eginen digute. Nork eta gizartearen gutxiengo handi baten nahiak, eskubideak eta kultura errespetatzen ez dituenak.

Gaurkoan ordea ez dut gehiago hedabideen gaiaz hitz eginen, mingarria den arren ez baita kaltetua atera den sektore bakarra, ez horixe. Azken bi urteko aurrekontuek, euskararen erabilera sustatzeko ekimen guztiak kaltetzea dute helburu:

hedabideak, haur eta gazteen aisialdia, kultur programazioa, entitateak euskalduntzeko programak, mintzapraktika egitasmoak, herritarren sentsibilizazioarako ekimenak, euskaltegiak, irakaskuntza... Hau da, erasoa erabatekoa da, helburu garbia duena: euskaraz bizi nahi dugunontzako esparruak irabazteko egindako lanak ahalik eta gehien tratatzea, horretan aritzen diren eragileei diru-laguntzak erabat murriztuz.

Nafarroako euskaltzaleok, gure Gobernuaren babes juridiko, politiko eta ekonomikorik gabe aurrera egin behar dugu. Gainera, kontziente gara, Gobernuak hiru plano horietan orain ukatzen duen babesa ezinbestekoa dela, gizartearen inplikazioarekin batera euskararen erabateko normalizazioa lortuko bada.

Egoera larria dela jakin badakigu. Horren aurrean zer? galde-tu dute hainbatek. Gure ustez, zailtasunaz zailtasun bi planotan lan egin behar dugu: alde batetik sormenetik tiraka inurrien antza auzoz - auzo, herriz - herri antolatuta, hiztun sareak osatu,

erabilerarako esparruak irabazi, diru iturri berriak bilatu... Eta, beste aldetik

Nafarroako euskaltzaleon nahia ozenago entzun dadin ekimen bateratu eta jarraituak antolatu; horretarako Nafarroan gero eta euskaltzale gehiago egon gaitezen diskurtso eta ekimen erakargarriak gizarteratu, politikariekin harremanak ugarritu, botere ekonomikoarengan ahal dela eragin, kale agerpen indartsuak egin e.a. Lehendabiziko egitekoari, hots, auzoz auzo saretze lan horretan, inozokerietan erori gabe, zerbait aurreratua dugula esan dezakegu, ez baita alferrik urteetan euskalgintzako langintza horretan sortutakoa: ikastolak, euskaltegiak, hedabideak, aisialdi eta kultur programak, mintzakide, komertzio eta profesionalen gidak...

Bigarren egitekoari dagokionean, Topagunea etxeko lanak egiten ari da; izan ere, azken urte hauetan, euskararen erabileran eragitea helburuarekin sortu diren euskara elkarte eta ia hedabide guztiak federatu baitira Topagunean. Horren ondorioz, esan dezakegu euskalgintzaren hanka bat Topagunearen inguruan egituratu dela eta horrek lagungarri izan behar lukeela Nafarroako euskalgintza egituratzen eta batzen.

Beraz, Topagunea prest dago, euskalgintza eta Nafarroako gizarte euskaltzaleekin diskurtso eta dinamikak adostu eta elkarlanean aritzeko.

"El Drogas"-ek esana: Pentsatzeari uzteko garaia iritsiko zaigu hiltzen garenean, bitartean...

Elkartu gaitezen!

2009ko abenduaren 13an, BECen Maialen Lujanbio txapelkunaren ahotik entzun zen azkeneko errimarekin hasi nahi izan dugu Egunkaria auziari buruzko artikulua hau. Baina zer zerikusia du lelo horrek amaitu berri den epaiketarekin? Bada, badu zerikusia. BECen ikusi genuen euskaldunok elkartzen garenean badugula indarra.

Euskaldunon Egunkaria itxi zutela zazpi urte beteko dira otsailaren 20an. Ondo gogoan dugu ostegun hura: Martxelo Otamendi herritarra eta zuzendaritzako beste lau kideak atxilotuta, Martin Ugalde Guardia Zibilez josita eta Egunkaririk ez kioskoetan. Kolpe gogor haren ondoren, euskaldunak elkartu egin ginen eta Donostiako kaleak leporaino betez erakutsi genuen gure indarra.

Dignidad y Justicia eta AVT-ek, Guardia Zibilaren beso judiazalaz fiskaltzaren hitzari izkin egin eta bere horretan jarraitu dute. Aukerak eduki dituzte duela zazpi urte egin zutena oker bat izan zela aitortzeko, baina nonbait, atzera egiteko gogorik ez eta zentzugabekeria hau amaieraraino eraman dute. Epaiketa amaituta euskalgintzak Egunkariako lagunen absolutioa ez den beste sententziarik ez du onartuko. Halaber, zentzugabekeria honek berriro elkartu arazi egin gaitu: Bilbon, Donostian edo eta Tolosan erakutsi dugu, euskarari emandako kolpe bakoitzak euskaltzale

gisa gehiago indartzen gaituela. Eta Egunkariaren itxieraren 7. urteurrenaren aitzakian otsailaren 20rako antolatutako egitarauan elkartuko gara Tolosa eta eskualdeko herritarrrak beste behin ere auzipetuei gure babes eskaintzeko zein injustizia hori berriro ere salatzen.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean sortutako giro hura, eta Egunkariaren aurkako auziak piztu duen garra euskalgintza osora zabaldu behar dugun sentimendua dute eragile askok; Galtzaundi Euskara Taldeak ere bai. Griñatsu dago herri hau, eskualde hau, sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz.


Babesik beroena auzipetuei. ©



Galtzaundi Euskara Taldea

Herri hau sortzen segi dezagun
Euskaratik ta euskaraz





Euskarazko web guneei diru laguntzak

6

Tolosako Udalak aurten ere, urtero legez, euskarazko web-guneak sortzeagatik, edota lehendik daudenak euskaratzeagatik diru laguntzak emango ditu. Diru laguntza hauen xedea da kultur, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta oro har publiko zabalari interesgarri gerta dakioken edozein alorretako erakunde eskatzaileari gas-tuak murriztea euskararentzat garrantzitsua den erabilera-esparru honetan leku oparoa izan dezan bertako eta berezko hizkuntzak.

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte proiektu edota informazioa sustatu eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoen, egoitza sozial eta fiskala Tolosan baldin badute.

Elkarte, erakunde edota norbanako eskatzaileen edukietatik abiatuta, web-guneak sortu edota erdaraz sortuta daudenak euskaratzeko proiektuak dira diruz lagunduko direnak.

Baldintzak

Hauek dira diru laguntza hauek jasotzeko baldintzak:

- Edukiak oso-osorik euskaraz izango dira gutxiarik. Honek ez du eragozten beste hizkuntzetan ere izatea. Domeinuan sartzera euskaraz izango da lehenetsitako hizkuntza, euskaraz izango da pantailaratzeko lehena.
- Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- Elikatzea: bisita kopu-

ria, kalitatea zein erabilgarritasuna eta eguneratzea.

d) Eduki horien barruan legetan babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du.

e) Web-gunea egina izatea diru eskaera egiterako eta eskaera orrian helbidea jartzea Udalak ikuskatua ahal izateko.

Eskaera inprimakia, egoki beteta, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentura helarazi behar da.

Agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

- Gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak.
- Diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia.

Eskaerak aurkezteko epea 2010eko ekainaren 30ean amaituko da.

Irizpideak

Diru laguntza emateko eta

TOLOSA, GORA

potatako suziria lehortzearekin batera hasiko mila kolorez jantzeko da. Eguraldi hotzari truko zein kanpoko. Galtzaundi Euskara

Normalizazioa

ABIZENAK EUSKARAZKO GRAFIAZ JARTZEKO KANPAINA JARRI DU ABIAN UEMAK

Galtzaundik eta Adunako Udalak hitzarmena sinatu dute bertako lan munduan euskara planak sustatzeko

Nafarroa Oinez festara joateko


zenbatekoa erabakitzeke, alderdi hauek baloratuko dira:

- Gunearen edukiak etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak.
- Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza.
- Maila eta era desberdinetako ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea.
- Software askea erabilteza.

Oraingoz, 2.000 €ko diru laguntza banatuko da. Eskatzaile bakoitzari, gehienera ere, web gunea euskaraz egiteak izan

duen kostuaren % 50 emango zaio, 500 euroko muga gainditu gabe.

Bestalde, emandako diru laguntzak, eskura ditzakeen beste diru laguntzekin batera, ezingo du egindako inbertsioaren kopurua gainditi. Horretarako, beste laguntzarik jaso edo jaso ez izanaren aitorpena aurkeztu beharko du.

Eskaera aurkeztu eta baldintzak betetzen dituenari bi hilabeteko epean helaraziko zaio Gobernu Batzarrak ontzat jotako diru laguntza. Epe hori amaitu eta ebazpenik eman ez bada, eskatutakoa ukatu egin dela ulertuko da. 



BENTA ALDEA

JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

TXOKOLATEGIA



Uli

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

KAFETEGIA

shanti kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxes: 943 674 113



errotatxo okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038



Belarmendi eskualdeko baserritarrei eta udaletxeei zuzendutako makina zerbitzua da

Belarmendi, gure herrietako belardi eta bideak txukuntzen

9

Belarra moztu eta bolak egin, edo artaberdea erein eta bildu; eskuz eta norbere kasa egiteko errendimendu gutxiko lanak dira hauek baserritarrentzat. Bestalde, udaletxeek ezin dituzte baserri-bideetako desbrozaketak (sasi-jotze) lanak edo eta areken (ur-bideen) mantenimendua egiteko makinak erosi, inbertsio izugarria eskatzen baitute. Bada, hutsune hauek betetzen ditu Belar mendi makina zerbitzuak. Aipatutako lanei maila goreneko errendimendua ateratzeko makinak jartzen dituzte baserritar eta udaletxeen eskura, eta gainera prezio ekonomiko batean.



Artaberdea biltzeko errendimendu handiko makina dute Belarmendin. Kosetxatzeko unearen irudia.

2002an jaio zen Belarmendi S.L. enpresa. Alkizan du egoitza. Geroztik, Donostialdea, Deba-Garaia eta Tolosaldeko baserritar eta udalerrien zerbitzura egin du lan. Behemendi eta Deba Garaia elkarrekin batera, Tolomendi, eskualdeko landa garapenerako elkarrekin enpresa honetako bazkidea da. Hain zuzen ere Tolomendiko kide diren Iker Karrera eta Imanol Olanok eman diote Galiziaundiri zerbitzu honen berri. “Belarmendi egitura independentea da, baina Tolomendi dirulaguntzen gestioaz arduratzen da. Aldundiarekin etengabe egoten gara harremanetan; batetik, makinetan inbertsioak egin ahal izateko, eta bestetik, zerbitzua bera merkeago eskaini ahal izateko”, argitu dute. Era honetan, kalitatea bermatzeaz gain, beste enpresekin alderatuz tarifa merkeagoak eskaintzen ditu Belarmendik. “Honenbestez, ekintza ekonomiko dexentea duen baserritarrentzat errentagarria da zerbitzu hau, makinetan inbertsiorik

egin beharrik ez duelako, eta zerbitzu bera eskaintzen duten enpresak baino merkeago delako”.

Belar-lanak eta artaberdearen ekoizpena

Belarra moztu, bolak egin, plastikoan bildu eta behar izanez gero garraiatu egiten du Belarmendik. Belar-mozketa garaiko lanaz gain ordea, belardiaren hobekuntzan ere badihardu. Ildo honetatik, lurra goldetu, area pasa, lur-azpia landu eta lurrari tratamendua emateko makinaria dauka. Zerbitzuari etekina ateratzen diena nagusiki baserritarra izan arren, gizartea bera onuradun zuzena dela ohartarazi dute Tolomendin. “Kontutan hartu behar da, hektarea askotako belardiak txukundu eta mantentzen direla, eta hori kalean edo hiri inguruan bizi den jendearentzako garrantzitsua da, inguruari bizi kalitatea ematen diolako”. Funtzio gehigarri hori aitortu behar zaiola uste dute.

Artaberdea biltzeko maki-

na duela urte bat eskas ekarri zuten Belarmendira. Tolomendin ziurtatu dutenez, azken urteetan artaberde sailak asko ugalduta dirau eskualdean. “Etor-kizuneko kultiboa da”, diote, “gehien bat kanpotik ekartzen da, baina prezioa goian dabil. Gainera, hemengo klima egokia da udaran artaberdea hazteko, behar adina bero eta hezetasun izaten baita. Ganaduentzat berriz, elikagai osatua da, bai esnetarako eta bai haragirako. Guzti honengatik, baserritarrek artaberdearen ekoizpenari heldu beste erremediorik ez dute”. Lehengai honen ekoizpenean arazo handiena uzta biltzean izaten da. Bere sasoiak bildu behar da eta baserritarrek izan ohi dituzten traktoreek oso errendimendu gutxi daukate. Horregatik ekarri zuten iaz kosetxadora. “Makina handia da eta izugarriko errendimendua du. Tamaina honetako makina bakarra da Gipuzkoan”. Artaberdea erieteko makina ere badute. Baserritarrak lurra prestatuz gero, gainontzekoa Belarmendiren bidez egin dezake.

Klima eta topografia arazo nagusi

Zerbitzuaren funtzionamendua sinplea da: otsaila partean Belarmendi eskualdeko baserritarrek harremanetan jartzen da, behar dituzten zerbitzuen eskaera egin dezaten. Eskaria aurretik jakinda, traktoreza-leek lana planifikatu dezakete. Nagusiki maiatzean moztu eta gordetzen da belarra, eta noski, baserritar guztiek orduan egin nahi izaten dituzte lanak. Honi bi arazo nagusi gehitu behar



zaizkio: klima eta topografia. "Oso sail malkartsuak ditugu, eta ezaugarri horrek lana geldoago egitera behartzen du. Eguraldiak ere zerikusi handia du traktorezaleen lan-martxan. Maiatzean eguraldi onak esku-hatzekin kontatu ditzakegu eta lana egin behar den garaian euria ari badu, lanak atzeratu egiten dira. Horrelakoetan makinistak lanez itota ibiltzen dira; izan dira ia 20 orduz jarraian lan egin behar izan duten aldiak ere. Eta hala ere, gerta liteke belarra euri zaparrada batek harrapatu eta baserritarra haserre geratzea". Baldintza horietan ditugu ordea, eta haiekin bizitzen ikasi behar da.

Udaletxeak ere erabiltzaile

Belarmendi sortu zenean eskualdeko hainbat udaletxek diru ekarpena egin zuten lehengo makinak erosi ahal izateko. Aitzitik, udalerriek ere zerbitzu honen abantailez gozatzeko egun: lur mugimendu txikiak egiteko makinak dituzte euren eskura, esaterako, lubizia baten ondorioz eroritako lurra mugitzeko. Baserri-bideetako aldeetan pilatzen diren sasiak kentzeko ere desbrozadorak dituzte. Baina Tolomendik areka (kuneta) garbiketa zerbitzuaren garrantzia azpimarratu nahi izan du. Euren ustez, areken mantenimendu lana ezinbestekoa da, hauen baitan baitago baserri-bidearen biziraupena. "Adibidez, udazkenean orbela pilatzen da, eta ur-bideak oztopatu egiten dituzte. Baina urak bere bidea jarraitzen du arekatik kanpo, bidea higatuz". Lehen euri garaiko lanik garrantzitsuena ur-bideak zaintzea



"Kontutan hartu behar da, hektarea askotako belardiak txukundu eta mantentzen direla, eta hori kalean edo hiri inguruan bizi den jendearentzako garrantzitsua da, inguruari bizi kalitatea ematen diolako"



izaten zela argitu dute. "Euria hasten zenean, beste lanik egin ezin zenez, atxurra hartu eta ur-bideak garbitzera joaten ziren baserritarrak. Orain ordea ez dute horrelakorik egiten, ez baserritarrek ezta udaletxeek ere". Azkenean areken mantenimendua egitea kostatzen den dirua baino gehiago inbertitu behar izaten dute baserri-bideak konpontzen. "Merke-garestia deitzen zaio horri", gaineratu dute.

Ondorio horiek ekiditeko jarri du martxan Belarmendikuneten garbiketa zerbitzua. Eskuz egiteko oso lan txarra da, ez baitu errendimendurik, baina Belarmendin espreski zeregina horretarako makina dute. Arestian aipatutako desbrozaketak zerbitzuak berriz arrakasta handia du. Urteak daramatzate zerbitzu hori eskaintzen, eta ondorioz, egungo eskualdeko baserri-bideak txukunago daude.

Lehentasunen zerrendako azken postuetan

Zerbitzuak errezatasun guztiak eskaini arren, krisi garai hauetan, baserri eta mendi bideetako mantenimenduak lehentasunen zerrendako az-

ken postuetaraino jaitsi dira, baita landa-inguruko herrietan ere. Tolomendiko teknikarien ustez, "lehentasun guztia herri kaskoan jartzen da baserri-bideak baztertuta". Gai hauen inguruko gastu murrizketak ondorio bat ekar lezakeela ohartarazi dute: "txukunketa lanik egin ezean bazterrak zikindu egingo dira; bideen mantenimendu eskasak berriz, lehen aipatutako arazoak sortaraziko ditu; eta honek guztiak eragin zuzena izango du biztanleen bizi-kalitatean".

Udaletxeei bideratutako zerbitzuek baserritarrei zuzendutako antzera funtzionatzen dute: urte hasieran udaletxeekin kontaktuan jartzen da Belarmendiko teknikaria, eta eskaerak egin ditzaten abisatzen ditu denak. Era honetan, makinistek herri lurretan egin beharreko lanak ere aurreikusi egin ditzakete. Sinplea dirudi, baina ez da hain erraza izaten, askok ez baitute eskaria egiten. Desbrozaketak zerbitzuaren eskaria ekaina eta uztailan pilatzen da, eta denerako betarik egoten ez denez, eskaria bere garaian egin duten udalerriek lehentasuna ematen zaiela adierazi dute: "Zerbitzua jasotzeko zein baserri-bide garbitu behar diren eta noiz azalduz eskaria egin behar da", argitu nahi izan dute. Dagoeneko udaletxeek eginak eduki behar dituzte euren eskariak. Une honetan, baserritarrak ari dira zeregina horretan. Bien bitartean, Belarmendiko traktorezaleak makinak puntuan jartzen ari dira, udaberriak aurrera ez baitute horretarako betarik izango.



Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA



Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

ibarra
Argi-Lanak

Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5
20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878
Faxa: 943 674 181
Mobila: 639 72 42 60

OSM
Informatika

Ordenadoreen salmenta
eta konponketa

Tolosa OSM Informatika S.L.
Rondilla 48 behea - 20400 Tolosa
Telf. 943 650 206
tienda@osminformatika.com

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Bikaina iz



Galtzaundi 318
10eko otsailak 19

ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiluak
Beirate artistikoak
Dutxa-ixturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA




Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak
Kotxe-aseguruak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-aseguruak
Denda-aseguruak
Erreireoak
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com



Oria katea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Iñauteriak 2010

zanda!



Bikaina izan da!

Iñauteriak 2010



Galtzaundi 318
10eko otsailak 19

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

Zumardi

SEGUROS
BILBAO




Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Colpasa con CALALAMA
L. B. GORRISOLA

15



Anetxe
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako
lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki
elektrikoen erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia
sail berria.
- Osakidetzarekin
hitzarmena.
- Ohe artikulatuak
distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

Juan
Larrazpu
eraikuntzak, s.l.

- Baserrietako igeltsaritza
eta egurrezko estrukturetan
adituak.
- Etxeen berrikuntzak:
- Fatxadak - Teilatuak -
Sukaldeak - Baiñu gelak,
etab...

Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)

Martin
Eceizabarrena

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

Soinu-jole, musika irakasle, soinu teknikari, pailazo eta filma egile.

Juan Manuel Zaldua

“Down sindromea dutenen normalizaziorako urrats bat izan nahi du *Simplemente* filmak”

Felix Aiestaran

Juan Manuel Zalduak (Tolosa, 1966), Olentzeroa espetxeratuta kaleratu zen 1977ko Gabon gauean Guardia Zibila Tolosako kaleetan agertu eta izan ziren istilu latzetan, ihesi zihoala bizkarean zuen akordeoi betean jaso zuen pilotakadaz, musikarekiko bere lotura zigilatuta geratu zen. Tolosako Musika Bandan hogeitaz aritu zen. Oboe eta akordeoia irakasten aritua, Euskal Herri osoa zeharkatzen du soinu teknikari lanetan. Emaldi jakinak egiten dituen Iparraldeko Eltzegor talde mitikoan hogeitaz aritu eta Urruñako Bertoli Enean noizean behin elkartzeko jarraitzen dute entsaioak egiteko. Duela bi urte Txiribiton Junior modura taularatu zen bozina eskutan. Otsailaren 16an, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian Anduezarekin batera aurkeztu berri du *Simplemente* filma. Gauza asko ditu kontatzeko, eta denak kontatu dizkigu.

Azal ezazu zure musika ibilbidea...

Kike Ugarterekin hasi nintzen akordeoi ikasketak egiten eta berak bultzatu ninduen oboe ikasketak egitera. 1980an hasita, hogeitaz urtez Tolosako Bandan aritu nintzen. Ruiz Bonarekin oboe ikasketak egiten jarraitu nuen eta bestetik Isidro Larrañagarekin akordeoia ikasten jarraitu eta bere akordeoi bandan aritu nintzen. Eltzegor taldean duela hogeitaz urte hasita akordeoia eta oboea jotzen ari naiz.

Bandan aritu zinen hogeitaz urteetan zein bilakaera izan zuen?

Udal Banda ginen arren, hasiera batean ez genuen inolako kontraturik eta ez beste ezer. Guzti hori erregularizatu egin behar zen. Udaletik autonomoak bihurtu ginen, baina hitzarmena sinatu genuen elkarlanerako oinarriak ongi finkatuta. Orduan sortu zen Tolosako Musika Banda elkarreko lehendakaria izan nintzen. Partaideen artean gazte gehiago sartzea izan zen helburuetako bat eta lortu egin zen.

Musika irakaskuntzan ere aritu izan zara..

Duela hiru urtetik eszedentzian nago. Tolosako Musika Eskolan 1985etik aritu naiz, hasiera batean maila ertaineko musika akademia zen, gero kontserbatorioa bihurtu zen, baina goi mailako kontserbatorioak hiriburuetan besterik ezin zenetik eratu, atzera berriz musika eskola bihurtu zen. Ikasleen artean denetik izaten da. Oboea irakastea nahikoa zaila da, batez ere hasieran. Oboea ezezaguna egiten zitzairen ikasle askori. Txaranga tradizio handia dagoenez, batez ere txarangerako musika tresnak irakasten dira musika eskolan.

Edonork ikas al dezake musika tresnaren bat?

Arazo fisiko larriren bat ez badu, bai horixe! Gogoia izan behar da eta oinarriko dedikazioa eman behar zaio. Ume batzuk gurasoek behartuta etortzen dira, baina musikarako gogoia ezinbestekoa da.

Musika soinu teknikari lanetan ere aritzen zara... Ez al da nekeza alde batetik bestera ibili beharra?

Batzuetan gogorra egiten da. Niretzat oso erakargarria da musikari teknikari lana. Oso bariatua da: musika talde bat, pailazoak, txistulari banda, mexikar kantariak edo Txan magoarekin aritu naiteke. Duela hogeitaz urte IZ estudioan hasi nintzen, Txirri, Mirri eta Txiribitonekin, Funtzioa, Txiskola, Balinda... eta beste hainbat programetan parte hartu genuen. Duela hamar urte gure kasa hasi ginen pailazoekin jarraitzen dugu eta beste hainbat ekitalditan ere

aritzen gara. Txan Magoarekin Boiseko diasporarekin egoteko aukera izan genuen. Mexiko DF-n izan ginen Donostiako txistulari Bandarekin, bertako Euskal Etxearen urteurrena zela eta. Uda honetan Renoko euskal jaietan izan gara.

Soinu teknikariaren lana aintzat hartua al dago?

Nire kasuan, inguruan dudan jendearengatik aintzat hartua nago, baina arlo honetan intrusismo handia dago eta horrek gure lana behar bezala ordaindua ez izatea dakar berarekin.

Izango duzu bitxikeriaren bat baino gehiago...

Gestoretako ikurrantzitako Giraldu eskua eman zion Carlos Herrera bere betiko biboterik gabe agertzean harrিতuta gelditu nintzen, baina are harrituagoa gelditu nintzen, soinu proba lanetan ari nintzela, buelta eman

eta bere betiko biboteaz agertu zenean: bibote postizoa zuen.

Txiribiton Junior modura aritzeko aukera nola sortu zen?

Horrenbeste urte teknikari gisa aritzean beraiekin batera, nik ere neure burua pailazo sentitzen nuen. Pello Zubiria adiskideak aspaldian izendatu ninduen horrela... Txiribiton Junior duela bi urte bihurtu nintzen. Aurretik Txiskolan eta bestetan hainbat esketx eginak nituen, baina ez zitzaidan burutik pasa ere egin horrelakorik. Telebistako saioak beraiek egin arren, kalekoak egiteko Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior sortu zuten, zuzeneko saio hauek egitea nekeza zitzaielako adina dela eta. Horrenbeste urtetan batera lan eginaz konplizitate handia dago gure artean eta ez zitzaidan zaila egin, Txiribiton Junior bihurtzea. Hasieran gogorra egin zitzaidan, baina gaur



“Haurrekin konektatzea ez da zaila, nire ustez; zaila izaten dena konexio hori mantentzea izaten da”



"Ume batzuk gurasoek behartuta etortzen dira, baina musikarako gogoia ezinbestekoa da".

egun eszenatokian oso ondo pasatzen dut.

Erraza al da umeekin konektatzea?

Pailazoen presentazioan dago magia eta haurrekin konektatzea ez da zaila, nire ustez; zaila izaten dena konexio hori mantentzea izaten da. Umeak oso azkarrak dira. Sudur gorria jarri eta lehen txalo zaparrada egina dago. Txiribiton pertsonai

noblea da: laguna da. Horrek, haurrentzat horren maitakorra izatea ahalbideratzen du.

Ez al da erantzukizun handia Txirri, Mirri eta Txiribiton ordezkatzeara?

Bai horixe! Baina Txirri, Mirri eta Txiribiton beraiek dira eta gure proiektua beraiengandik sortu da, baina guk gure bidea egin behar dugu, ez dugu beraien clonak izan behar.

Nola sortu zen *Simplemente* filma egiteko asmoa?

Jon Anduezak aurretik, down sindromea duen lagun batekin Bilintx izeneko laburmetraia egin zuen. Leioako Jaialdian saria jaso zuen eta bertan down sindromea zuten lagunez osaturiko dantza taldearekin topo egin eta izugarriko potentzialitatea zutela jabetu zen. Aurretik gidirik jarri gabe, Castro ondoko Oriñongo kanpin batean bildu genituen down sindromea zuten sei lagun. Bukaeran hondartzan egin behar zuten dantza prestatu behar zuten. Astebeteko erodajea dena grabatu genuen; berrogeita hamar orduko materiala guztira. Ondoren, gidoia osatu da eta grabatutakoa moztuta 80 minutuko filma bihurtu da. Irudien aukeraketa egitea nekeza izan da, eta muntaia bukatu dugunean ezusteko ederra izan dugu, kontakizun oso polita eta koherentea osatu delako.

Kamara urrean eroso aritu al ziren protagonistak?

Beraien eguneroko bizimodu guztia grabatu genuen. Bi kamara ttiki-ttiki erabili ziren eta soina kameran mikrofonoetatik hartu zenez, protagonistei berehalaxe ahaztu egin zitzaizkien grabatzen ari zirela. Naturalitate handiaz aritu ziren.

Zer aurkituko du ikusleak *Simplemente* filman?

Down sindromea dutenen normalizaziorako urrats bat izan nahi du filmak. Kontakizuna beraien ikuspegitik islatu nahi izan dugu. Harridura sortuko du ikusleengan, istorioa kontatuta dagoen moduagatik. Filma aurrera doan heinean, ikusleak protagonistek down sindromea dutela ahaztu egiten du. Beraiengandik ikasteko asko dugu; beraiek ez

dute barnean dutena adierazteko aurreiritzi edo lotsarik.

Filma egiteko zein lan taldea aritu zarete?

Jon Andueza izan da zuzendaria, ni zuzendariorde modura aritu naiz, Juanba Berasategi arduratu da ekoizpenaz, gidoia Marian Porcelek osatu du eta musikaz senperena arduratu da.

Zein da filmaren berezitasuna?

Filma dokumentalaren barruan sartzen da fikziorik ez dagoelako; beraiek egin dutena moldatu besterik ez dugu egin. Ez da ohiko dokumentala: ez dago off-eko ahotsik. Ez dira aktore profesionalak. Eta azken berezitasuna gidoia erodajea ondoren egin dugula da.

Euskarazko bertsiorik izango al da?

Filma erdaraz egin zen eta euskarazko azpiztituluekin emango da. Beraien berezotasuna gorde nahi izan dugu. Beraien hizkera eta ahoskerarengatik bikoizketa ia ezinezkoa da.

Filma egiteko zein izan da arazo nagusia?

Arazo nagusia ekonomikoa izan da. Ate ugari jo behar izan ditugu. Gure lana kontuan izan gabe 180.000 eurotako aurrekontua izan du. Auzolan modura, lagun artean egin dugu proiektua gure denbora eskainiz. Batez ere Eusko Jaurlaritza eta EITBK eman digu laguntzarik nagusiena. Kuttak eta Donostiako Udalak ere bere laguntza eman dute, baina itxi gabe dago; horretan ari gara. Aurkezpena Donostiako Victoria Eugenia egin genuen otsailaren 16an, asteartita egunez, alegia. Bestetik, Tolosako Leidorren aurkezteko aguna aurrerago zehaztuko da.



Txarli Gesteira
Blogaria

Inauteriak pasa berri dira baino horrek ez du esan nahi txantxa eta bromak alde batera utzi behar ditugunik, sarean azken hilabeteotan bolo-bolo dabilen "joko" batekin natorkizue.

Zintzilik: mukiak kentzen ari zarenean hiltzea. #hitzokei

#hitzokei hiztegia, hiztegi eroa hain zuzen. (hitzokei.tximinia.net)

Sare sozialak, modan daude, nork ez ditu ezagutzen Facebook, Myspace, Tuenti, Zuetagu, Twitter... Azken honetan sortu zen #hitzokei, Twitter, microbloging bezala ezagutzen den zerbitzu bat da, erabiltzaileek testu soileko mezuak bidaltzea ahalbidetzen du, 140 karaktereko gehieneko luzearekin, SMS baten antzera, bat-bateko mezularitza moduan, Twitterren webgune bertatik edo Echofon bezalako nabigatzaileentzako aplikazioetatik bidali daitezke mezuak.

Eguneraketa hauek erabiltzailearen proflean erakusten dira, eta jasotzeko aukera hautatu duten beste erabiltzaileei ere bidaltzen zaie. Jatorrizko erabiltzaileak mezu hauek berak aukeratutako lagunei soilik bida-

li, edo erabiltzaile guztien eskura jarri ditzake mezuak. Honela, #hitzokei-ren kasuan, erabiltzaileak hitz berriak asmatu eta twitter-era bidaltzen hasi ziren. Definizio pertsonalak dira, bakoitzaren umorearen arabera. Dagoeneko, 60 lagunek baino gehiagok gehitu du hitzen bat, eta 600 hitz baino gehiago daude. Bi modu daude hitz berriak gehitzeko, bata webgune bertatik (hitzokei.tximinia.net) eta bestea lehen aipatutako twitter-etik (twitter.com), kasu honetan hitza jasota geratzeko, hitza eta bi puntu, definizioa eta ondoren #hitzokei etiketa idatzi behar dira.

Hona hemen erabiltzaileek bidalitako hitzokeikada batzuk:

Faxista: Fax-ak bidaltzearen poderioz fanatiko bihurtzen dena.

Intxorta: Elgetatik Elorrio aldera dagoen pikaderoa.

Infnitua: Haxixa amaitzean da-

goenean egin ohi den porro mehea.

Ez dok armairu: 1. Ikeako instrukzioak ez ulertzearen ondorioa 2. 60etan homosexualen onarpen publikoaren alde kantatu zuen taldea.

Pasaia: Agureak zebrabidea gurutzatzen ari direnean entzuten duen hitza.

Horrelako hitz "xelebreez" beterik dago hiztegi hau, beraz badakizu, zuk ere osa dezakezu, nahiz twitter edo webgunetik bertatik, idatzi, bota zurea. Nik dagoeneko bota det!

Bide batez, twitter erabiltzen hasi ezker, eta jakinda 140 karaktere baino gehiago ezin direla idatzi bertan, jakin ezazue badaudela URL-ak (web orrien helbideak) txikiagotzeko aplikazioak. Hauetako bat Euskal herrian garatua: ttiki.com

Helbide luze bat duzunean, joan ttiki.com-era, idatzi bertan

eta aplikazio honek helbide berri bat emango dizu, ttiki.com/ eta lau digituz osatua egongo dena, helbide berri honek, zuk lehen idatzitako helbide berdineraren emango zaitu. Oso praktikoak dira horrelako aplikazioak, telefonotik helbide korapilatsuak emateko garaian ere bai.



Ahozkotasunaren jaialdiko emanaldiak Tolosa, Aduna, Villabona eta Ordizian izango dira.

Hitzaren artea ahoz aho

20 Martxoaren 6an hasiko da Ahoz aho, Ahozkotasunaren jaialdiaren III. aldia. Hilaren 18ra arte luzatuko dira jardunaldiok. Emanaldi gehienak ordea martxoaren 11tik 14ra bitartean izango dira: ipuin kontalariak bai haur eta bai helduentzako, magoak, troberoak, kantautoreak, erakusketak, hitzaldiak eta ikastaroak; denetik izango da Adunako Asvineneak Elche-ko La Caratula antzerki taldearekin elkarlanean prestatu duen egitaraua. Tolosan, Adunan, Andoainen eta Ordizian egingo dira emanaldiak. Aurten goak memoria historikoa izango du gaitzat.


Leire Zubeldia

“Kanpoan egiten den lana ezagutu, eta guk hemen egiten duguna kanpoan ezagutaraztea”. Hitz hauekin azaldu du May Gorostiaga antolatzaileak Ahoz aho jaialdiaren helburua. “Kultur-truke bat da: kanpoko

artistak ekartzen ditugu hona, eta beraien lanetatik ideia berriak jasotzen ditugu; aldi berean, Euskal Herritik kanpo egiten diren ahozkotasun jaialdiara euskaldunak bidaltzen ditugu, hemen egiten dena kanpoan ezagutu dezaten”, jarraitu du Gorostiagak. Honela, aurtengo ahoz aho jaialdian, batez ere Hego Amerikako artistak izango dira, eta Jose Mari Karrerek, Elcheko, Castellongo eta Alicanteko jardunaldietan parte hartuko du.

“Ipuinak ez dira soilik haurrentzat”

Eskualdean ahozkotasun jaialdia antolatzen den hirugarren aldia da. Aurreko edizioetako esperientziatik asko ikasi dute, eta urtetik urtera errazagoa zaie lan egitea. “Lehenengo urtea abentura moduko bat izan zen guretzat, ez baigenekien ezer. lazkoa ere gogorra egin zitzaigun; izan ere, hamar egunez luzatu zen jaialdia eta herri ezberdinetan emanaldi paralelo asko izan genituen. Aurten lau egunetan pilatu ditugu emanaldi guztiak. Egun horiek intentsioak izango



dira oso, baina gutxienez laburragoa egingo zaigu”. Egiarizor, martxoaren 6an hasiko da jaialdia, Tolosako Trianguloan El Oráculo del cuento-k eskainiko duen “Kandelen argipean” emanaldiarekin; amaitu berriz, hilaren 18an amaituko da, Beatriz Egizabalek Ordizian eskainiko duen ipuin ikastaroren azken saioarekin.

Aurreko aldietatik ikasi duten beste gauza bat ipuinekiko dagoen aurreiritzia da. “Uste dugu ipuinak soilik umeentzat direla. Ildo honetatik, haurrentzako emanaldietan jende mordoia izaten zen; aldiz, oso publiko gutxi izan dugu hel-

duentzat eta euskaraz diren saioetan". Aldi honetarako estrategia aldatu dute: "Familia osoarentzako emanaldi batzuk antolatu ditugu. Ea haurren aitzakian helduak hurbildu eta gozatzaren duten".

Ahoz-kotasuna ipuin-kontaketa baino gehiago


Ahoz-kotasuna: oso kontzeptu zabala da. May Gorostiagari aholkotasuna nola ulertzen duten azaldu dezaten eskatu diogu: "Bere sormen-lana hitzaren bidez adierazten duen artista duten azaldu dezaten eskatu diogu: "Bere sormen-lana hitzaren bidez adierazten duen artista orok lantzen du aholkotasuna", erantzun du. Kontzeptu hau ez da soilik ipuin-kontaketara mugatzen. Aurten prestatutako egitarauak frogatzen du hori: "ipuin-kontalariak dira nagusi, hori egia da, baina baditugu magoak, hitzaldiak, kantu-egileak, margolariak...". Gizakiak betidanik eduki du hitz egiteko beharra, gauzak kontatu eta entzuteko; literatura idatzia baino lehenago aholko literatura zegoen; kulturak sortu aurretik hitz egiten zen. Horregatik, kultura guztietan, hizkuntza guztietan, aholkotasunak gauza ugari ditu amankomunean. Baina aldaerak ere badira Gorostiagaren ustez: "Esate baterako, iaz Asiako ipuin kontalari bat etorri zen. Hark hitzaren bidez kontatzen zituen ipuinak, baina gorputzaren bidez ere bai. Mugimendu eta keinuen bidez betetzen zuen ipuina. Hemen ez daukagu influentzia hori".

Jaialdian izango diren atzerriko artisten emanaldietan

konturatu ahal izango gara kultura bakoitzak bertako aholkotasunean eragiten dituen aldaerak. May-k artista batzuk aipatu dizkigu: "Euskal Herriko ordezkari moduan Iñaki Carretero arabarra, Ixabel Millet nafarra eta "Kandelen argipean" Bizkaian ekoiztutako emanaldia izango dira. Artisten gehien-goia Hego Amerikakoa izango da aurten: Perutik Mercedes Carrion magoa dator, Colombiatik Jhon Ardila, Ana Torrellas Venezuelatik eta Jermán Argueta Mexikotik. Espainiar penintsulako ordezkari gisa, Ana Griot madrildarra eta Antonio Gonzalez valentziarra etorriko dira. Artista bakoitzak bere emanaldia eskainiko du, baina aipatutako guztiak ikusizun berean ikusteko aukera izango da Ahoz aho jaialdiko galan. "Aurten gainera bi gala egingo ditugu: bat, Oridizako herri antzokian izango da hilaren 12an, eta bestea, Adunako Asvinenean egingo dugu 13an. Azken hau gainera ipuin motzen gala izango da. Zinean laburmetraiak daude, litaraturan narrazioak, eta aholkotasun jaialdian hiru minutu inguruko ipuin motzak jorratuko ditugu".

Emanaldi guzti hauetaz gain, May-k martxoaren 15, 16, 17 eta 18an Ordizian eskainiko den ipuin ikastaroa azpimarratu du. "Beatriz Elgezabalek emango du ikastaroa, eta bertan, haurrei ipuinak nola kontatu erakutsiko du". Erakusketa bat ere izango da, Uruguaytik datorren Mariana Sellanes margolariak

ekarritako "Historias prestadas" izeneko koadro sorta hain zuzen ere.

Saioak leku ezberdinetan izango dira: areto, taberna, plaza, edo eta elkarre ezberdinen egoitzetan besteak beste. Honen, Asvinenearen "kultura leku ezberdinetara zabaltzeko helbura" islatzen du. Aukera badago, beraz, aukeratu, entzun, gozatu eta kontatu. 



Vancouver-en jokutzen ari diren neguko joko olimpikoetan egotea zen Ioseba Rojoren denboraldiko helburua. Canadako hitzordu handirako txartela ezin izan du lortu, baina egiten ari den denboraldia urrezko domina janzteko modukoa da. Orain Europako distantzia luze-ko txapelketa du helburu, eta honen ostean jokatu den Espainiakoa ere bai.

Leire Zubeldia

Urrun geratu zaizkio Ioseba Rojori 7 urte zituela ski-ak jantzi eta familiarekin Aralarren egiten zituen ibilaldiak. Alpi- no Uzturre taldearekin 9 urte zituenean jokatu zuen bere lehenengo lasterketa. Geroztik, elur bola baten antzera handitzen joan da lortutako garaipenen zerrenda. Denboraldiz-denboraldi bere mailak gora egiten du; 09-10ean ere bai: "Denboraldia oso ondo di-joa. Aurrekoan baino emaitza hobekoak jasotzen ari naiz", kontatu digu pozik. Galtzaundik deituta kanpoan zen Ioseba, eta puska batean ez zela etxeratuko adierazi zuen. "Inauterietan ere ez?", galdetu, eta berak: "ez, Inauterietan ere ez. Agian jendeak ez du sinetsi-ko, baina ni ohituta nago Inauterietan kanpoan pasatzen. Gai-

Ioseba Rojo, Europako distantzia luze- ko txapelketa begiz jota



Goian, Ioseba eta Imanol Rojo anaiak Beret-eko martxa irabazi ondoren.



nera, gustatzen zaidana egiten dudanez, ez dut lñauterietan pentsatzen”, argitu du tinko. E-postaz moldatu gara berarekin hitz egiteko. Entrenamendu gogorrek eragindako nekeari aurre egin eta zintzo erantzun ditu galdera guztiak.

Vancouver ez da posible izan

Denboraldi hasieran helburu horixe ezarri zion bere buruari Ioseba Rojok: Canadako Vancouver-en jokatu ziren neguko olinpiar jokoetan parte hartzeko txartela lortzea. Ezin izan du helburu hori lortu, nahiz eta Espainiako Selektzioarekin batera joateko hautagaietako bat izan den azken unera arte. Baina Iosebaren kasuan elurak gehiago du zuritik beltzetik baino. Vancouver-eko izara zuria zapaltzerik lortu ez badu ere, beste hainbat lasterketan utzi du tolosarrak bere arrastoa: “Nik Txekiako Bedrichov-eko nazioarteko lasterketan lortutako hirugarren postua azpimarratuko nuke. Honekin batera, nabarmentzekoa da 23 urtez azpikoen mundialean lortutako 44. postua”. Lorpen hauek gain aipagarria da otsailaren 8an Beret-eko martxan lortutako garaipena. Gainera, bere anaia Imanol ere lehendabiziko postuan helmugaratu zen kadeteen kategorian. Eguberri inguruan berriz, Font Romeun ere irabazlea

izan zen, eta denboraldia hasi zenetik jokatuako lasterketa guztietan maila bikaina eman du, norvegiar eta suediar eskiatzaileen pare ibilita.

Aipatzeko utzi dugu Rojoren beste garaipen bat. Bere hitzetan, “orain arteko saririk garrantzitsuenak” dena: Tolosako kirolaririk onenearen izendapena hain zuzen ere. Aipamenen galan ezin izan zuen egon, orduan ere kanpoan baitzen, baina berdin-berdin gozatu zuen izendapenaren gozoa. “Izugarrizko poza hartu nuen”, ziurtatu du.

Hurrengo pausoa, Europako Txapelketa

Olinpiar jokoak alde batera geratu direnez, Iosebak hila-bete honen amaieran jokatu diren Europako distantzia luzeko txapelketa hartu du helburutzat. Lan txukun bat egin nahi du bertan, eta gauza bera esan du ondoren jokatu den Espainiako txapelketaz ere. Hemendik denboraldia amaitu bitartean zeregin hori izango du. Sasoi puntu egokian dagoela erakutsi du orain artean, eta beraz, kontutan hartzeko moduko eskiatzailea da.

Eskiatzaileen bizimoduaz

Etetik kanpora denbora luzea igaro beharraz, leku batetik bestera egin beharreko bidaia etengabeaz, goi mailako ki-

rola eta ikasketak uztartzeko zailtasunez eta abarrez ere galdetu diogu Alpino Uzturreko eskiatzaileari. “Bai. Gauza guzti hauengatik eskiatzailearen bizitza oso sakrifkatua da. Bai neguan eta bai udan, 200 egun inguru pasatzen ditugu etxetik kanpo. Baina oso ondo daramat, Europa eta mundua ezagutzen ari naiz horrela. Bizimodu honek jende asko ezagutzeko bidea ere ematen dizu. Ikasketei dagokienez erritmo geldoagoan noa, baina gogoia eta sakrifkatzeko ahalmenarekin atera daiteke. Niretza garrantzitsuenak guzti honekin disfrutatu egiten dudala da”. Eskiarekiko zaletasunak ez ezik, anaia Imanol gertu edukitzeak ere asko laguntzen diola aitortu du. “Oso harreman ona daukagu”, gaineratu du. Imanol Rojo ere gora doan eskiatzailea da, eta aurtengo denboraldia bikaina izaten ari da berarentzat ere.

Eta aurtengo denboraldi amaitu eta zer? Bada, Ioseba hemendik lau urtera jokatu diren neguko joko olinpikoei begira jarri da. “Eskiatzaile bezala, neguko olinpiar jokoetan parte hartzea iritsi nahi dut”, argitu du. Baina aurretik lan asko du egiteko, eta txapelketa ugari irabazteko. Eskiak elur gainean dituela, pausoz pauso egingo du bidea, orain arte bezala. ©



ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa, margoak, eskultura.

Larrugintza ikastaroa helduentzako

Bozetadoa, patronajea eta larruzko tiraz josia. Iraupena: 20 ordu

Datak
Martxoaren 3tik maiatzaren 5era. asteazkena 17:00etatik 19:00etara.
Prezioa: 160 euro

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tif. 677 340 685



galtzaundi

Jarri publizitatea


Galtzaundi aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6. 20400 Tolosa
Tel. 943 655 004
publizitatea@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
blogspot.com



irakurri entzun Ikusi



Arimen maisua
Irene Nemirovsky

Daria mediku da protagonista. 1920an Grezian eta Italiar odoleko etorkina da Frantzia. Inor ez da bere mediku senaz fidatzen eta gosetik libratu ezinik dabil, ez bera eta ezta bere emazte eta haur jaioberria ere. Aberats baten maitaleari ezkutuan abortatzea lagundu eta gero, pixkanaka-pixkanaka errespetua bereganatzen joango da. Psikoanalisa orduantxe sortu zen, eta hontaz balaituz, Dario arimen maisu bilakatuko da, behetik gora egingez.

Papera eta kartoia
Kerobia

Iruñeako taldearen triologiaren bigarren atala dugu hau. 2008an "Materia organikoak eta gainerakoak" plazaratu ondoren, 2009an "Papera eta kartoia" honekin etorri zitzaizkigun. Zabor ontziak konektatzeko hari moduan erabilia, ohikoak dituzten letra eta konposizio landuekin jarraitzen dute baina jarrera berritzailearekin. "Creative Commons" lizentziapean argitaratua, dohainik jeitsi dezakete haien webgunetik.

Up in the air
Jason Reitman

Ryan (George Clooney) da protagonista. Finantza munduan maila goreneko profesionala izaki, aireportuetan, luxuzko hoteletan eta alokairuzko autoetan bizi da, nahi duen guztia eskuratuz. Baina nagusiak leku finko batean lan egitea eskainiko dio. Protagonista etxe bat, kabi bat izateak duen garrantziaz jabetuko da.

Otsailaren 19tik martxoaren 5era arteko hitzordduak

Erakusketak

Aranburu Jauregia

- Otsailak 26tik apirilak 10era: "Aurrez aurre - Emakumeak protagonista" erakusketa interaktiboa.



TOPIC

- Otsailaren 28ra bitartean: Maligno txotxongiloen erakusketa.



Zine Forum

Leidor

- Otsailak 25: "Yuki & Nina" filma. 19:15 eta 21:45.

Zinema

Leidor

- Otsailak 19: "Fama". Haurrentzako filma. 17:00.

- Otsailak 20: "Sherlock Holmes". 19:30 eta 22:00.

- Otsailak 21: "Fama". Haurrentzako filma. 17:00. "La decision de Anne". 19:30. "Sherlock Holmes". 22:00.

- Otsailak 22: "La decision de Anne". 19:30.

- Otsailak 26: "Nine". 22:30.

- Otsailak 27: "Nine". 19:30. "Un tipo serio". 22:30.

- Otsailak 28: "Igelak eta zapoak". Haurrentzako filma. 17:00. "Nine". 19:30. "Un tipo serio". 22:00.

Ikuskizunak

TOPIC



- Otsailak 20: Tatxin eta Tatxan-en eskutik "Abenturak" antzezlan haurrentzako. 17:00.

- Otsailak 26: "Off-On" Yolanda Arrieta eta Juantxo Zeberioaren irakurketa musikatua. 20:30.

Hitzaldiak

Tolosako Kultur Etxea

- Otsailak 23: "Mugen gainetik" hitzaldia Mercedes Olivera eta Ana Landaren eskutik. 19:30.



- Otsailaren 25etik aurrera: "Arquologia de Egipto" ikastaroa Kutxa Aulak antolatuta. Ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara.

Ahoz aho 2010



- Martxoak 6: "Kandelen argipean" emanaldia El Oraculo del Cuentoren eskutik. Triangulo plazan. 11:30ean.

- Martxoak 11: Ixabel Millet-en emanaldia Ordiziako Ur-daneta eskolan 10:00etan eta Ordiziako Jakintza Ikastolan 11:15ean. Ana Griot eta Jhon

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasierara data	Ordu Kopurua
Paper eta kartoi fabrikazioa. Hastapena.	2010/02/23	30
Soldadura TIG posizio horizontalean	2010/02/23	50
Aire egokitu hodi muntaia	2010/02/23	20
CAD-CAM. Abiadura handiko mekanizatua NX	2010/02/23	40
Sagardogileentzako oinarriko informatika	2010/02/23	30
Lan Arriskuen Prebentzioa	2010/03/01	50
Etxeko mantenua eta kudeaketa	2010/03/01	10
Internet + e-administrazioa	2010/03/01	20
Mobilizazioak eta transferentziak. Laguntza teknikoaren erabilerak	2010/03/04	8
Etxeko paisaia. Balkoiak eta lorategi txikiak.	2010/03/04	5

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA Posta-e: info@ikastn.com
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa Webgunea: www.ikastn.com

Ardilaren saioak Tolosako E.P.A. zentruan 16:00etan. Iñaki Carreteroren ikuskizuna Amarotz auzoan 18:00etan. Mercedes Carrion eta Jerman Argueta Tolosako San Esteban auzoan 19:30etan. Ana Torrellas eta Mariano Martinez Andoingo itzalagunean 19:30ean.

- Martxoak 12: "Kandelen argipean" emanaldia Ordiziako Ur-daneta eskolan 10:00etan eta Jakintza Ikastolan 11:15ean. Ixabel Millet-en saioa Tolosako Amarotz auzoan 18:00etan. Jhon Ardila eta Jerman Argueta Andoingo itzalagunean 19:30ean. Gabino Diegoren emanaldia Tolosako Leidor aretoan 20:30ean. Ahozko-tasunaren gala nagusia Ordiziako antzokian 22:15ean. Mariano Martinez Billabonako Obaba tabernan 23:00etan.

- Martxoak 13: "Kandelen argipean" ikuskizuna Tolosako Bonberenean 11:30ean. Mercedes Carrion eta Jerman Argueta Ordiziako Barrenan 18:00etan. Ahoz-aHIP-ahoz-aHop rap ikuskizuna Tolosako kultur etxean 18:00etan. "La voz de la libertad hitzaldia Andoingo Itzalagunean 18:00etan. Ana Griot eta Jhon Ardila Tolosako San Esteban auzoan 19:30etan. Ipuin txiki-gala Adunako Asvinean 22:30ean.

- Martxoak 14: Iñaki Carretero Bonberenean 11:30etan. Ana Torrellas eta Marlano Martinez Ordiziako Barrenan 12:00etan.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 19 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Asteazkena, 24 Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	Astelehena, 1 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
Larunbata, 20 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	Osteguna, 25 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Astearte, 2 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
Igandea, 21 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 26 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Asteazkena, 3 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Astelehena, 22 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Larunbata, 27 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Osteguna, 4 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
Astearte, 23 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Igandea, 28 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Ostirala, 5 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	943 672 932
Medikua	943 683 361	943 675 858
Berastegi-Elduain	943 681 134	943 650 016
Medikua	943 683 361	639 352 156
Bidegoian	943 681 134	943 670 325
Medikua	943 681 134	112
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	943 672 536
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	943 651 425
Medikua	943 653 329	943 673 022
Irura	943 690 720	943 675 320
Osasun zentroa	943 650 931	943 682 077
Tolosa	943 006 800	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	943 006 800	943 682 228
San Esteban, hitzordua		



SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA



Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irura Faxa. 943 694291
rotulosvicente@Jel.es

Beatriz

Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886 - 943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615 - 943 671 149

Muxutruk

lana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527
- Ingeleseko klaseak ematen dira, bakarka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.160.268

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai izazkun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536
- 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843
- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631
- Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitsua eta bista onak. 685.765.855

Salgai

- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- Igini markako akordeoia saltzen da. Taimainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

Horoskopoa

Otsailaren 19tik martxoaren 5era bitarteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Askotan ez duzu uste pertsona batek edo egoera batek horrenbeste min eragin dezakeenik, baina ikusi duzu baietz. Arrozoiaren bila ibiltzeak ez du zentzurik ordea. Gauza guztiak ez dute zergati bat, beraz ez nekatu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Lanean arazoak sortuko zaizkizu, eta errua zurea izango da gainera, ez baitzara zuzen jokatzeko ari. Beraiek konturatu baino lehen jarrera aldatzen ez baduzu gauzak okertu litezke.



sagitario

Azaroak 23-Abenduak 21

Hobe eskura duzun horri eustea ziurra ez den lorpen baten zain egotea baino. Horoskopoa eskaintza onartzea gomendatzen dizu, agian ez baita puska luze batean besterik egongo.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Gehiegi pentsatzen duzu etorkizuneari. Ez al zara konturatzen gaurrik gabe ez dagoela biharrik. Saia zaitzez egunerokoa ahalik eta ondoen egiten, horren baitan baitago biharkoa.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Pertsona bat azpijokoan ari zaizu. Tentuz beraz. Bestalde, ezezagunak diren arrazoiengatik bidaia bat egin beharrean aurkituko zara. Maitasuneari bikain.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Errutinan sartuta zaudeten irudipena duzu eta horrek eragin egiten dio zuen harremanari. Ondo etorriko zaituzte bidaiatxo bat egitea, edo inoiz egin ez duzuen planen bat egitea.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Ederrak izan dira: dantza, parranda, edana, jana... Baina amaitu da dena. Ez al duzu uste une egokia dela horrenbeste atzeratzen duzun gorputz-zainketa horrekin hasteko?



libra

Irailak 23-Urriak 22

Dirua konturatu gabe joaten zaizula diozu, baina hori zure errua da. Gastuak murriztu eta aurrekontu jakin baten barruan sartzen saiatu behar duzu diru arazoak izan nahi ez badituzu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Beti arrastraka ibiltzeak nakatuta zaude. Lasai, kostata baina tunel beltzaren amaierara iristen ari zara. Behingogatik zure bizitzako aukera suertatuko zaizu. Ez alferrik galdu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Zuen harremana hoztu egin da. Arrazoi lañauterietan gertatutako zerbaitekin izan daiteke. Hitz egitea izango da hoberena. Arazoak etxean, dirua kenduko dizu hori konpontzeak.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

la etsita zaude. Lan postu bat bilatzea ez da erraza, are gutxiago gaur egun. Baina jarraitu atea jotzen; lana aurkituko duzu. Nahiz eta zure bizitzako lana ez izan, lagungarri suertatuko zaizu.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21


Izu gehiegi diezu gau bateko harremani. Helburua potoloz ahaztu eta ondo pasatzearekin pentsatu behar duzu. Egiten duzun guztiak ez du zertan helmuga bat izan behar. Disfrutatu ezazu eta kitto!



- Web orriak • Publizitate kanpainak • Logotipoak • Irudi korporatiboa
- Liburuak • Aldizkariak • Rotulazioa • Ilustrazioak • Multimedia

Ikuspegi zabala bezeroaren eskura

Goitik, tolosan kokatzen den diseinu grafiko enpresa bat da. Esperientzia handia duten programatzaile, ilustratzaile eta diseinatzailez osatua. Azken teknologiaz baliatuz lanaren pausu guztiak, ideiarekin sorraratik amaitzeraino, egiteko gaitasuna dugu. Kalitatezko lan eta zerbitzua zure eskura. Sar zaitetz gure webgunean eta azken lanen ereduak ikusi ahal izango dituzu. Ongi etorria.



Jar zaitetz gurekin harremanetan:
943 67 08 19

goitik@goitik.com
www.goitik.com

Korreo, 45 - Behea - 20400 Tolosa - Gipuzkoa

martxoaren 24an

e2

euskaratik eta euskaraz

martxoak 24,
Galtzaundi Euskara Taldearen urteko batzarra
Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:30ean



galtzaundi
EUSKARA TALDEA

Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 655 004